

EZKABARTEKO TRAFIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Ordenantza hau eman da ondoko artikuluetan xedatuari jarraikiz: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2-b) artikulua; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 29. artikulua eta martxoaren 24ko 5/1997 Legearen 7.b) artikulua (lege honek Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna aldatu zuen), artikuluek Udalaren gain uzten baitituzte hiriko bideetako trafikoaren eta zirkulazioaren alorretako eskumenak.

PORTAERA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ibilgailuek debeku dute asotsa egitea, seinale akustikoak desegokiro erabiliz edo tupustean azeleratuz, baita ihes-hodi trukatuak, ozen-ozen jarritako musika ekipoek edo bertzelako ezohiko inguruabarrek eragin dezaketena ere.
2. artikulua. Ibilgailuen soinu-alarmak arrazoirik gabe pizteagatik zehapena ezarriko da.
3. artikulua. Debeku da suteak, zikinkeria eta zirkulaziorako arriskua eragin dezaketen edo bideak edo ingurumena honda dezaketen gauzak edo likidoak bidera botatzea.
4. artikulua. Oinezkoek debekaturik dute baimenduta ez dauden tokietatik galtzada gurutzatzea. Toki baimenduetan barna egin beharko dute, ahal den azkarrena, gelditu gabe edo bertze erabiltzaileei traba egin gabe, eta zirkulazioa oztopatu gabe. Bide publikoetan debeku dira hala ibiltarientzat nola jostetan dabilentzat arriskurik edo trabakarik ekar lezaketen jostetak edo jolasak.
5. artikulua. Galtzada gaizki baldin badago, obrak, eguraldia edo bertze zerbait dela eta, gidariak kasu eman beharko dute, istripurik eta oinezkoendako eragozpenik gerta ez dadin.
6. artikulua. Argi laburrak zirkulazioko araudi orokorrean ezarritakoaren arabekoak izanen dira.
7. artikulua. Debeku da gidatu bitartean telefonoak edo komunikatzeko antzeko bitartekoak erabiltzea, hauek "eskuak libre" izeneko gailua dutenetakoak ez badira, behintzat. Ibilgailua gidatzean, hotsa hartu edo berriro sortzen duen aparaturen bati loturiko kasko edo aurikularrak jarrita edukitzea ere debeku da.
8. artikulua. Zehapena jarriko da ibilgailuak Ezkabarteko bide publikoan edo edozein ibai, erreka, iturri edo ikuztegiren ondoan garbituz gero.

Zehapena jarriko da, halaber, ibilgailuak bide publikoan konpontzen badira, olio aldutzen bada edo ingurumenean kalteak eragin ditzakeen edo gainerako bizilagunei eragozpenak sortzen dizkien beste edozein ekintza egiten bada.
9. artikulua. Ordenantza hau ez da aplikatuko probintziaren edo estatuaren eskumenerako bideetan.

BIZIKLETAK ETA ZIKLOMOTORRAK

10. artikulua. Ziklomotorren, bizikleten, gurpil-oholen eta gidarien energiaz mugitutako gainerako ibilgailuen kasuan, zirkulazioaren arau orokorrak bete beharko dira.

11. artikulua. Bizikletak eta ziklomotorrak ezin izanen dira aparkatu oinezkoendako alderdietan edo pasealekuetan; Udalak ezarritako gune erreserbatu eta behar bezala seinalatuetan soilik aparkatuko dira.

12. artikulua. Ziklomotorrak erdibaterian aparkatuko dira galtzadan, metro eta erdiko zabalera okupatuz, gehienez ere.

13. artikulua. Motozikleta edo ziklomotor bat bi ibilgailuren artean aparkatuz gero, ez da haietan sartzea galaraziko, ezta zirkulaziora itzultzeko maniobra ere.

14. artikulua. Bizikletak, gurpil-oholak, motorrik gabeko irristailuak edo antzeko aparatuak espaloietan, oinezkoendako eremuetan eta bizikletendako bideetan soilik ibiliko dira. Ari direnean, oinezkoen ibilari egokituko diote berea, eta betiere trabarik egin gabe edo arriskurik sortu gabe ariko dira.

15. artikulua. Bizikletak galtzadan barna joanen dira lehentasunez, espaloitik ahal den hurbilen. Lerro bateko baino gehiagoko bideetan, albokoetan barna ibiliko dira. Lerro bateko baino gehiagoko bidegurutzetara hurbiltzean, zein aldetara egin gogo den bira, eskuin-eskuinean dagoen lerroaren eskuinaldetik joanen dira. Inoiz ez dute lehentasunik izanen oinezkoen aldean.

16. artikulua. Debekaturik dago bizikletak gauez ibiltzea, aurreko argia eta atzeko islatzailea, gutxienez, ez badaramatzate.

Argi keinukaririk ez duten bizikleten eta ziklomotorren gidariek garaiz seinalatu beharko dituzte egin beharreko norabide aldaketak eta biraketak, besoak erabiliz, erregelamenduak adierazten duen bezala.

Oinezkoendako eremuetan, ibilgailu horien abiadura 20 km/h izanen da gehienez ere.

17. artikulua. Ziklomotorren gidariak eta erabiltzaileak beharturik daude kaskoa erabiltzera, behar bezala homologatua, ongi jantzia eta lotua, indarra duen araudiak ezarritako moduan.

18. artikulua. Ziklomotor guztiek matrikulaturik egon behar dute eta dagokien matrikulazio plaka eraman beharko dute.

19. artikulua. Trizikloak ez dira ibiltzen ahal ez bidegorrietan ezta espaloietan ere, metro bat zabal baino gehiago badira. Segway-ekin edo antzeko ibilgailu elektrikoekin bizikletekin bezala jokatu da, eta ordenantza honetan horiendako erran diren guztiak aplikatuko zaizkie.

MERKATARITZAKO GAI ARRISKUTSUAK ETA GARRAIOETAKO IBILGAILU HANDIAK

20. artikulua. Merkataritzako Gai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren Erregelamendu Nazionalaren 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan sartutako merkataritzako gai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, Erregelamendu horren 1 edo 2-A arrisku etiketak eraman behar dituztenek, debeku dute Ezkabarteko herrietako hiriguneen barnean zehar ibiltzea.

21. artikulua. 20. artikuluan aipatu ibilgailuek guztiz debekatua dute Ezkabarteko udal mugape osoan aparkatzea.

AUTOBUSAK, KAMIOIAK, ATOIAK ETA KARABANAK APARKATZEA

22. artikulua. Arau orokorra izanen da 3.500 kg-tik goitiko BGPa duten ibilgailuek debeku izatea udal mugapeko bide guztietan aparkatzea.

23. artikulua. 21 bidaiari baino gehiagoko edukiera duten autobusek ezin dute udal mugapeko bideetan aparkatu (industrialdeetan eta horretarako propio ezarritako tokietan izan ezik).

24. artikulua. 22 eta 23. artikuluetan ezarritakoa galarazi gabe, Udalak berariazko tokiak ezartzen ahalko ditu halako ibilgailuak aparkatzeko; kasu horretan, erregelamendu bidez zehaztuko den baimena jaso beharko da udal agintariengandik.

25. artikulua. Debeku horiek ez dira beteko behar bezala justifikaturiko salbuespen kasuetan, betiere alde zurretatik agintari eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

26. artikulua. Karabanak eta atoiak aparkatzeko beharrezkoa izanen da udal organo eskudunaren baimen berariazkoa eskuratu eta lurzoruaren aprobetxamendu bereziaren prezio publikoa ordaintzea.

27. artikulua. Debeku da arras karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barranean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan, halakorik bada. Horiek osasungarritasuna eta higiena bermatzeko adina bitarteko izan beharko dute.

TRAFIKOA KONTROLATU ETA ANTOLATZEKO NEURRIAK

28. artikulua. Udalak egokitzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izanen ditu trafikoa antolatzeko, zenbait tokitan zirkulatzeko baldintzak aldatuz, murriztuz edo debekatuz, betiko nahiz aldi baterako, aparkalekua berrantolatuz eta arautuz.

29. artikulua. Udalak aldi baterako aldatu ahal izanen du zirkulazioaren antolamendua Ezkabarteko eremu batzuetan, baita sarrerak debekatu edo murriztu ere, zirkulazioa seguruagoa eta errazagoa izan dadin.

30. artikulua. Udalak aldi baterako debekatu ahal izanen du aparkatzea jarduera baimenduek okupatu beharreko eremuetan eta konpondu, seinalatu, mantendu edo garbitu behar diren tokietan. Halako kasuetan eremu horiek mugatuko dira, debekua 24 ordu lehenagotik adieraziz, neurriari noiz emanen zaion hasiera adierazten duten seinaleen bidez.

Epe horretan kentzen ez diren ibilgailuak beste leku batera eramanen dira, baina jarduketa horrek ez du ekarriko ez tasa ordaindu beharrik ez trafiko salaketarik. Kasu horietan ibilgailuak non dauden jakinaraziko zaie titularrei.

31. artikulua. Eremu publikoan edozein gauza jartzeko, Udalaren baimena beharko da. Horrelakorik ez duen oro berehalakoan kenduko da, interesdunaren kargura; halaber, baimena izanik ere, bideetako segurtasuna edo osasungarritasuna ziurtatzeko neurriak hartu ez badira.

32. artikulua. Debeku da arras zirkulazio seinaleak paratzea, aitzinetik Udalaren baimena izan gabe.

Inolaz ere ez da baimenduko publizitatea zirkulazio seinaleetan edo haien ondoan jartzea.

33. artikulua. Udalak bide batzuk lehentasunezkoak edo zirkulazio dentsitate handikoak direla deklaratu ahal izanen du, haietan bigarren ilaran gelditzea debekatu eta bertan egindako arau-hausteengatik zehapenei isuna ezartzeko.

34. artikulua. Ezkabarteko udal mugapeko bide publikoan ibilgailuak aparkatzeko tokia mugatua da. Hortaz, elkartasunez jokatzeko deia luzatzen da.

Horrenbestez, ibilgailu bat 15 egun gehienez egoten ahalko da toki berean mugitu gabe. Epe hori gaindituta, ibilgailua aurreko tokitik gutxienez 200 metrotara aparkatu beharko da.

Baimendutako eremuan denbora gehiegi emanez gero, zehapena jarriko da.

IBILGAILU ABANDONATUAK

35. artikulua. Ibilgailu abandonatuak kalean luzaroan eta mugagabeko epean egon ez daitezen, bide publikoa erabiltzeko ohiko aukerak murriztu eta narriadura estetiko eta zikinkeria ekartzen baitituzte, hurrengo artikuluetan zehaztutako jarduketak eginen dira haien gainean, kanpoko itxurak, toki berean emandako denborak eta bertze inguruabarrek abandonaturik dagoela pentsarazten badute.

36. artikulua. Ezkabarteko Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta bost egun naturaleko epea izanen du egokituz jotzen dituen alegazioak eta, betiere, ibilgailuaren aseguruaren kopia, aurkezteko. Ibilgailuak arriskuren bat sortzen badu, bertatik kentzen ahalko da eta, gero, titularrari jakinaraziko zaio.

Ibilgailuren batek nahitaezko asegurua ez duela ikusiz gero, berehala eramanen da.

Aurreko lerroaldean aipatutako epean titularrak alegaziorik aurkezten ez badu, ezta indarra duen asegururik ere, ibilgailua udal altxatokira eramaten ahalko da. Ibilgailua altxatokira eraman ondoren, handik ateratzeko beharrezkoa izanen da indarra duen asegurua aurkeztea eta I. eranskinean aipatu tasa ordaintzea, baita garabiaren gastuak ere.

Ibilgailu abandonatua altxatokira eraman eta titularrak berreskuratzeko eskaerarik egin gabe bi hilabete iraganik, baita alegazioak eta aseguru indarduna aurkezteko epea bukatzen denetik ere, desegitera bidaliko da eta hala jakinaraziko zaio Probintziako Trafiko Burutzari, dagokion erregistrotik ezabatzeko.

GELDITZEA ETA APARKATZEA

37. artikulua. Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen eranskineko 68. zenbakiari jarraikiz, ibilgailua, pertsonak hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko, 2 minutu baino gutxiagoz mugitu gabe edukitzea da gelditzea.

Aparkatzea, berriz, geldituta ez dagoen ibilgailua mugitu gabe edukitzea da.

38. artikulua. Ibilgailua geldituta dagoenean, arau orokorra da gidaria ezin dela ibilgailutik alden, eta, salbuespen gisa, hala egiten badu, motorra itzali beharko du eta hurbil egon, eskatzen zaion unean edo egoerak behartuta, kendu ahal izateko.

39. artikulua. Erabat debekaturik dago gelditzea:

a) Babeslekuetan, oinezkoen babesguneetan, erdibitzaileetan, oinezkoen eremuetan eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuetan.

b) Higiezinetakako ibilgailuen sarrera-irteeretan, dagokien pasabide seinalea dutenetan.

c) Seinaleak ongi ikustea eragozten den tokietan.

d) Izkina, bidegurutze edo bidebanatzeetatik 5 metro baino gutxiagora.

e) Zubietan eta tuneletan, non ez dagoen kontrako seinalerik.

f) Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen alderdietan eta lorategietan.

g) Ezinduendako edo bertze erabilera batzuetarako espaloietan izaten diren beheraguneetan.

h) Seinaleak debekatzen duen tokietan.

i) Zirkulazioaren lerro bat oztopatzen den tokietan.

j) Seinale bidez, biratzea baimenduta egonda, biratzeko aukera eragozten denean.

k) Hiriko garraio publikorako baizik ez diren geraleku eta aparkalekuetan.

l) Zirkulazioa oztopatzen den gainerako toki guztietan, denbora txikienerako bada ere.

40. artikulua. Ibilgailuak ilaran aparkatu ahal izanen dira, hau da, zintarriarekin batean lerrokatuak; baterian, hau da, zintarriarekiko perpendikularrean; edo erdibaterian, zeharka.

40.1. Seinaleak zoladuran dituzten aparkalekuetan ibilgailuak markatutako esparruaren barnean kokatuko dira.

40.2. Ibilgailuak zintarritik ahalik eta hurbilen aparkatuko dira, baina galtzadaren alde hori garbitu ahal izateko tarte txiki bat utzita.

40.3. Bide publikoetan ezin izanen dira aparkatu ibilgailu motordunetik bereizitako atoiak, 26. artikuluan baimena emateko xedatu dena izan ezik.

40.4. Bertze erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran aparkatuko da.

Baterian aparkatuz gero, alde bietan aparkatutako ibilgailuetara arazorik gabe sartzeko moduan eginen da.

41. artikulua. Guztiz debeku da honelakoetan aparkatzea:

- a) Seinaleek debekutzen duten tokietan.
- b) Gelditzea debekatua dagoen tokietan.
- c) Bigarren ilaran, edozein kasutan.
- d) Zaborrontzien ondoan, zabor bilketa galaraziz edo oztopatuz.
- e) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ateratzea eragotziz edo oztopatuz gero.
- f) Minusbaliatuek bertze inork ez erabiltzeko seinalatutako tokietan.
- g) Galtzadaren erdian.
- h) Behar bezala seinalatutako toki erreserbatuetan.
- i) Espaloietan, pasealekuetan, oinezkoen alderdietan eta lorategietan.

IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK KENTZEA

42. artikulua. Ibilgailua kendu behar duenak segituan egiten ez badu, Udaleko albienteek eremu publikotik kendu eta udal altxatokira eramaten ahalko dute, honelakoetan:

- a) Arriskutsua denean, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publikoen funtzionamenduari traba larria egiten dienean, ondare publikoa hondatzen duenean eta, orobat, ibilgailu hori eremu publikoan abandonatua dagoela uste denean.
- b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen denean.
- c) Ibilgailua bera hondatu delako, ibilgetzen bada.
- d) Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 67.1 artikulua hiruugarren lerroaldean xedatutakoari jarraikiz, ibilgailua ibilgetu ondotik, arau-hausleak isunaren zenbatekoa ordaindu nahi ez duenean edo hura ordaintzeko bermerik eman nahi ez duenean.
- e) Ibilgailua bide lerroetan edo zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailereren zerbitzurako soilik erreserbatutako zatietan aparkatuta dagoenean.
- f) Edukiontzia husteko lanak oztopatzen dituen.

43. artikulua. Kasu bakar batzuk baizik ez aipatzearen, ibilgailua ordenantza honen aurreko artikulua a) idatz-zatian zehaztutako inguruabarretan dagoela eta, beraz, kentzea justifikatua dagoela ulertuko da:

43.1. Gelditzea debeku den toki batean aparkatuta dagoenean.

43.2. Ibilgailua bigarren ilaran eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.

43.3. Kantoi baten ertzetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik zati bat aterata, bertze gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituzten.

43.4. Oinezkoen pasabide seinalatu batean edo urritu fisikoentzako espaloi beheagune batean aparkatuta dagoenean.

43.5. Erabiltzeko baimendutako orduen barrinean pasabide bat osorik edo zati batean okupatzen duenean.

43.6. Zamalanetarako tokietan aparkatuta dagoenean, haiek erabiltzen diren orduetan.

43.7. Garraio publikorako geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkatuta dagoenean.

43.8. Larrialdiko edo segurtasuneko zerbitzuentzat erreserbatutako tokian aparkatuta dagoenean.

43.9. Urritu fisikoentzako toki erreserbatu batean aparkatuta dagoenean.

43.10. Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasabide edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan aparkatuta dagoenean, espresuki baimenduta dagoenean izan ezik.

43.11. Bidean doazen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.

43.12. Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen duenean.

43.13. Bide batetik datozen gidariei bertze bidea ikustea trabatzen dienean.

43.14. Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.

43.15. Galtzadaren erdian aparkatuta dagoenean.

43.16. Betiere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragozpen larria sortzen zaienean.

44. artikulua. Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak kendu ahal izanen dituzte kasu hauetan:

44.1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatua dagoen toki batean aparkaturik daudenean.

44.2. Bide publikoa garbitu, konpondu, kontserbatu edo hartan seinaleak jarri ahal izateko ibilgailuak kendu beharra dagoenean.

44.3. Larrialdietan.

Inguruabar hauen abisua lehenbailehen egin beharko da, eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanez dira ibilgailuak, edo udal altxatokira, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.

Eramateak ez du inolako ordainketarik sorraraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

ZEHATZEKO PROZEDURA

45. artikulua. Ordenantza honetan araututako gaietan jarraitu beharreko prozedura Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Zehapen Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritakoa izanen da eta, horretan aurreikusirik ez dagoen orotan, Zehapen Ahalmenaz Baliatzeko Prozeduraren Erregelamendua, abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, aplikatuko da.

46. artikulua. Ordenantza honetan araututakoaren kontrako arau-hausteengatik irekitako espedienteak alkate udalburuak izendatzen duenak instruituko ditu. Hura amaituta, Ezkabarteko Udaleko alkate udalburuak emanen du bidezko ebazpena.

47. artikulua. Diru zehapenarekin batera, gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena ere jaso dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak, betiere zehapena Udalaren eskumenekoa duten egitateak badira, egiteko hori duten udal organoek tramitatu eta ebatziko dituzte, eta ondotik agintari eskudunari igorriko zaizkio, soilik gidatzeko baimena edo lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko balizko zehapena ezar dezan.

48. artikulua. Jakinarazpenetarako, ibilgailuaren gidariaren eta titularraren helbidea gidariaren eta arau-hausleen erregistroan eta ibilgailuenean, hurrenez hurren, ageri dena izanen da. Interesdunak bertze helbide bat ematen badu, aldatu eginen da, horretarako arrazoia, instruktorearen iritziz, prozedurari trabak jartzeko ahalegin maltzurra ez bada.

49. artikulua. Salaketa jakinarazi ondoko hogeita hamar egun naturaleko epean %50 merkeago ordaintzen ahalko dira ordenantza honetako arau-hausteen ondoriozko isunak. Isuna %50 merkeago ordaintzeak berarekin dakar alegazioak aurkezteari uko egitea eta prozedura ebazpen espresik eman behar izan gabe amaitzea, errekurtsioak paratzen ahalko badira ere.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra.—Ordenantza honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

—Tasa, ibilgailua eramateagatik: 100 euro.